



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Eneko Sagardoyren *Moto* antzezlanaren jasotzen duen ingelesezko liburu bat aurkeztuko da Avignongo Antzerki Jaialdian

Bilbo, 2026ko uztailaren 2a. DoSEL (Drama of Smaller European Languages), Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako antzezlanen itzulpenen eta garapenean oinarritutako nazioarteko proiektua -Arriaga Antzokiak, besteak beste, bultzatua— mugarri berri batera iritsi da: *EIGHT PLAYS: Drama of Smaller European Languages* izeneko ingelesezko bildumara. Liburu horretan, Arriaga Antzokiaren *Moto-Membra Jesu Nostri* (2022) ekoizpenaren bidez dago ordezkaturik euskara; izan ere, lan horrek Eneko Sagardoyren testua du oinarri, eta Justin Petersonek eta Tim Nicholsonen ingelesera itzuli dute. Liburua 2026ko uztailaren 9an aurkeztuko da Frantziako Avignongo Jaialdi entzutetsuan.

Aurkezpena Avignongo Cloître Saint-Louis-en egingo da, European Theatre Convention (ETC) erakundeak antolatutako [European Theatre Talks](#) zikloaren baitan; bertan, Rok Božovičarrek —Kranj-ko (Eslovenia) Prešeren Antzokiko zuzendariak eta proiektuaren arduradunak— DoSEL proiektua eta antzezlan-bilduma aurkeztuko ditu.

Bildumak antzezlanen itzulpen hauek biltzen ditu:

- Eneko Sagardoy, “Moto – Membra Jesu Nostri,” Justin Petersonek eta Tim Nicholsonen euskaratik itzulia.
- Dora Šustiċ, “Piċman,” Kroazieratik Vladislav Beronjak itzulia.
- Lon Kirkop, “A Moon of Our Own,” Malteraeratik Kat Storacek itzulia.
- Lluġsa Cunillċ, “The Donkey and the Stone,” Katalanetik Dustin Langanek itzulia.
- Maša Pelko, “Für Ophelia (A Mythology of Drowning),” Eslovenieratik Barbara Skubicek itzulia.
- Jeton Neziraj, “The Adventures of the Bosch Family in Unmikistan”, Alexandra Channerrek albanieratik itzulia.
- Ekaterina Georgieva, “Free Falling”, Bulgarietarik Atanas Igov-ek itzulia.
- Piret Jaaks, “Do Animals Know How to Count?”, Justin Petronek estonieratik itzulia.

Umberto Eco ospetsu egin zuen esaldiak dioen bezala —eta proiektu honetan behin eta berriz entzun dugun bezala—: «Europaren hizkuntza itzulpena da». Itzulpena ez da soilik hitzak hizkuntza batetik bestera eramateko prozesu tekniko bat; topaketarako,



DRAMA
OF SMALLER
EUROPEAN
LANGUAGES



Co-funded by
the European Union



jakin-minerako eta elkarren aitortpenerako ekintza bat da. Haren bidez, istorioek bidaiatu dezakete, ideiek mugak gaindituz oihartzuna izan dezakete, eta kulturek elkar ezagutu dezakete. «Liburu honetan bildutako zortzi lanak konbentzimendu horren emaitza dira. Itzulpenari esker, espazio komun bat aurkitu dute; bertan, Europa osoko eta haratagoko ikusleek zein antzerkigintzako profesionalek irakurri, eztabaidatu, antzeztu eta berrasma ditzakete», dio Rok Bozovičarrek sarreran. Bildumaren editorea Dino Pešut da; editore exekutiboa, Tamara Bračič Vidmar; editore linguistikoa, Jana Renée Wilcoxon; eta diseinatzaile grafikoa, Ana Bassin. Liburua Prešeren Theatre Kranj antzokiak argitaratu du.

DoSELen helburua da Europako hizkuntza gutxituetan jatorriz idatzitako antzerki-lanen nazioarteko ezagutza eta irisgarritasuna areagotzea, baita horiek maizago taularatzea sustatzea ere. Ildo horretan, nabarmentzekoa da *Moto-Membra Jesu Nostri* lana bera euskaraz antzeztu zela Eslovenian, 2025eko urrian, proiektu honi esker. DoSEL proiektua Europako zortzi kultur erakunderen arteko lankidetzaren emaitza da: Maltako Arte Eszenikoen Agentzia Nazionalea, Sala Beckett (Katalunia), Zagrebeko Kroaziako Antzoki Nazionalea, Estoniako Antzerki Agentzia, Kosovoko Antzoki Nazionalea, Ivan Vazov Antzoki Nazionalea (Bulgaria), Prešeren Antzokia (Eslovenia) eta Bilboko Arriaga Antzokia (Euskal Herria).

Proiektuari buruzko argibideak: <https://dosel.eu/>



Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

